

DB

Behar Hitzza
Leioa



Behargintza Leioa

¿Quieres formarte para mejorar?

Ikasturte honetan ere, enpresa, merkataritza eta lan bila ari direnentzako prestakuntza ikastaroak eskainiko ditugu. Prestakuntza eskaintza ona daukagu, baina zerbait falta dela uste baduzu, esaguzu eta saiatuko gara eskaintzen.

Behargintza Leioan, Behargintza Erandio eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun sailekin batera, doaneko prestakuntza jardunaldiak programatu dira programa berri honen testuinguruan: **“Negozio eredu berriak txikizkako merkataritzan”**.

Gure udalerrietan programatutako moduluak merkataritzarekin eta merkataritzak identifikatutako beharrezkoen ematen diete erantzuna.

Horrexegatik, hain zuzen ere, uste dugu egitaraua interesgarria izan daitekeela zuentzat. Lau modulu dauzka eta nahi dituzuenak aukeratu ahal dituzue.

Ikastaro bakoitzak astelehenetik ostiralera, 14:00etatik 16:00etara iraungo du.

CURSO	LUGAR	FECHA INICIO	HORARIO
Vendiendo a través de las Redes Sociales	LEIOA	5 OCTUBRE	14:00-16:00
Planes de Fidelización 2.0	ERANDIO	19 OCTUBRE	14:00-16:00
Modelos de Negocio basados en la Gestión de Precios. Compraventa Inversa.	LEIOA	2 NOVIEMBRE	14:00-16:00
Mapas de Experiencia de los Clientes	ERANDIO	16 NOVIEMBRE	14:00-16:00

Informazio gehiago behar baduzu, harremanetan jarri Behargintza Leioarekin: 94.400.41.95 telefonoa edo: merkataritza@leioa.net

Izena eman nahi baduzu, datuak bete ditzakezu [esteka honetan bertan](#).

Behargintza Leioa Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa

Mendibil kalea, 3 . 48940 - Leioa
Tfnoa.: 94 400 41 95 | Faxe: 94 402 25 41
www.behargintzaleioa.net
behargintza@leioa.net

 @LeioaBG  Leioako Behargintza

SAILAK:

Orientazioa
behargintza.orientazioa@leioa.net

Prestakuntza
behargintza.enplegua@leioa.net

Enpresa
behargintza.enpresa@leioa.net

Ekintzailtza
behargintza.ekintzaile@leioa.net

Leioa Blog 1º Lehiaketa

Leioako Udalak abian jarriko du [bloggerren lehen lehiaketa](#), merkataritza eta ostalariei begira: [LEIOA BLOG](#). Ekimen honen helburua da Leioak duen potentzial eta erakargarritasuna komunikatu, iragarri eta ezagutzera ematea, gure merkataritza eskaintzaren berezko nortasunaren eta bere kalitatearen gaineko interesa piztu.

Jakina denez, antzeko ekimenak jarri dira martxan beste udalerrri batzuetan, eta datuek diote gero eta jende gehiagok erabiltzen dituela baliabide digitalak eta preskriptoreen iritzia kontsultatzen dutela.

Komunikatzeko modu berri hau komunikabide tradizionalen osagarria da eta mundu osoko merkataritza arlo eta marketako enpresa ehunduraren posizionamendua sendotzeko erabiltzen da. Marka handiek merkatu-nitxo berriak bilatzen dituzte influencer horien bitartez, joerak ezagutzeko, produktuak konparatzeko eta iritzi-liderren balorazioak ikusteko sare sozialak erabiltzen dituen publiko berria. Kasu ugari dago, gero eta sarriago.

Beste merkataritza gune batzuen lehia gogorraren aurrean, indarra egiteko beste aukera bat dakar honek, gure enpresa ehunduraren eguneratzea erakusteko aukera. Aukerak ezagutu eta baliatzen saiatu behar dugu, zalantza barik, hasi den etorkizunaren parte direlako.

[Urriaren 9an eta 10an](#), parte hartzen duten establezimenduek akreditatuta egoteko berezigarria jasoko dute, bloggerrek egingo duten ibilbidean egoteko. Horiek, [urriaren 13an](#) argitaratuko dituzte beren iritziak.

Horregatik guztiagatik, esperientzia honetan parte hartzera animatu eta gonbidatzen zaitugu. Horrela, ekimen honen oihartzuna biderkatuko dugu eta sare sozialetan ikusgarriagoa izango da.

[¿Parte hartu nahi?](#)

([Lehiaketaren oinarriak](#))



Lagunduko diguzu Leioa hobeto saltzen?

Aurten, ikasturtea hasteko kanpaina berria martxan jartzea erabaki dugu. Leioako merkataritza eta ostalaritza ezagutzera ematera lagunduko digun kanpaina. Eta zer egingo dugu horretarako?

1.LEIOA BLOG LEHIAKETA

Leioak duen potentzial eta erakargarritasuna komunikatu, iragarri, ezagutzera eman nahi dugu, merkataritza eskaintzaren berezko nortasuna eta bere kalitatea.

Denok dakigu gero eta jende gehiago dabilela sare sozialetan eta Interneten leku jakin batean erosketara esperientzia izan dutenen iritzi desberdinak ezagutzeko. Eta zer bilatzen dugu ekimen honekin? **Leioak dituen gunez hitz egitea, Leioak merkataritzan eta ostalaritzan eskaintzen duen kalitate eta aniztasunaz hitz egitea.**

Komunikabide tradizionalen bitarteko publizitateaz gain (eskuorriak, prentsa, irratia...), gero eta gehiago erabiltzen dira komunikabide digitalak ezagutzera emateko eta iritziak emateko.



Urriaren 9an eta 10an, Leioa ezagutzera emateko ibilbidea egingo da, eta blogari partaideek zuen establezimenduetatik igaroko dira. Gerta liteke osagarriren[1] bat eskatzea Leioako leku ospetsuetan, urriaren 10an, egingo den **argazki saiorako**. Urriaren 13an, beren esperientzia argitaratu eta partekatuko dute. Argazkiei begira, **estetika eta edertasun zentroek** ere zuen lekua izan dezakezue espazio honetan.

Horretaz prestakuntza ematea eskatu diguzue eta zue-tako bakoitza hartzen ari den esperientzia pertsonal hori osatu nahi dugu merkataritza eta ostalaritzaz, sare sozialetan, iritzia ematen ohi duten pertsonak, zehazki, LEIOAZ hitz egin dezaten. Azken batean, "iritzi emaile" horiek jarraitzaile talde bat daukate, eta beraz, preskriptoreek gu ezagutzeak atek irekiko dizkigu, jende gehiagok ezagutuko ditu gure establezimenduak eta hurbildu egingo dira.

Baina egitasmo hau abian jartzeko ez ditugu bakarrik blog iritzi emaileak behar.

Batez ere, euren burua ezagutzera eman nahi duten **merkatariak eta ostalariak** behar ditugu. Zuen establezimenduetako (moda dendak, zapata dendak, dekorazioa, tabernak, jatetxeak...) erakuslehoetan jartzeko bereizgarria jasoko duzue. Horrela, grafikoki ikusiko da zuen lokala ezagutzera eman eta hari buruz hitz egitea nahi duzuela, zuen eskaintza argitaratzea eta sare sozialetan agertzea.

Ez al zaizue aukera ona iruditzen?

Bat egin nahi duzue? Behargintza Leioara deitu (94.400.41.95) eta [izena eman](#).

Zuen zain gaude

Lan Autonomoa bultzatzeko Lege berria

Irailaren 10ean, BOEn, lan autonomoa eta ekonomia soziala sustatzeko neurriak aldatu eta eguneratzeko lege berri bat argitaratu da. Horrela, autoenplegua haztea da helburua, bai banakakoa bai taldekakoa ere.

Lan autonomoaren esparruan, sustapen-neurri eta Gizarte Segurantzako erregimen bereziko kotizazioan hobari berriak ezartzen dira, eta martxan dauden batzuk ere hobetzen dira. Artikulu honetan, garrantzitsuenak azpimarratu nahi ditugu:

- Sei hilabeteko **tarifa finkoa**, orain, norbere konturako jarduera batekin hasi direnek erabili ahal izango dute, gerora langileak kontratatu zein ez. Eta horiez gain, arreta berezia behar duten kolektiboek ere eduki ahal izango dute tarifa hau.
- Langabezia **prestazio osoa kapitalizatu ahal izango da, edozein adinetan**, norbere konturako jarduera bati ekiteko inbertsioan eta hasierako gastuetan erabiltzen baldin bada. Ordainketa bakarrean eska daiteke, zati bat bakarrik kapitalizatu eta bestea Gizarte Segurantzaren kuotak ordaintzeko erabiltzea, edo ordainketa guztia kuota horiek ordaintzeko.
- Indarreko araudi berri honekin, 30 urtetik gorakoek, **bederatzi hilabetez gehienez, langabezia prestazioa eta LAABko alta bateragarri egin ahal izango dituztenez.**

Mendekotasun ekonomikoa duten langile autonomoen kasuan, beren jarduera profesionala behar bezala garatzea eragozten duten egoera jakin batzuen aurrean, langileak kontratatze aukera dute legean aipatzen diren kasuetan.

Bestalde, eta Ekonomia Sozialaren esparruan, sustapen eta laguntza politika hauekin jarraitzeko asmoz, legearen testuak nobedadeak dakartza, hala nola, laneratze enpresak eta enplegu zentro bereziei aitortzea Interes Ekonomiko Orokorreko Zerbitzu emaileak direla.

Behargintza leioak enplegurako prestakuntza ekintzen proposamen berria atera du

Udako atsedenaldia igarota, normaltasunera, lanera, ikasketetara, e.a. itzultzea dagokigu. Dena den, krisiak eta langabeziak jota dauden pertsona askorentzat prozesua ez da horren lineala, ezta horren erraza ere. Horregatik, Behargintza Leioan, beste behin ere, zuen zerbitzura jartzen gara enplegu bilaketa planifikatzen eta antolatzen laguntzeko.

Gure inguruan eta Lanbideren orientazio zerbitzuan hartzen ditugun pertsonen artean antzemandako beharriari erantzuteko ahaleginean, tailer eta ikastaro desberdinak antolatu ditugu lan bilaketarako erabiltzen dituzuen tresnak hobetzeko eta nortasun profesionala lortu edo egiaztatzeko.

Hilero, **enplegu bilaketarako tailer** bat emango dugu, astebeteko iraupenarekin (10h.), Lanbidek homologatutako orientatzaile batek zuzendua, ikuspegi praktiko eta parte hartzailea duena, jakin badakigulako taldean gehiago ikasten dela eta informazio fluxua emankorragoa dela. Tailer honetan, Lanbideren webgunea hobeto ezagutzeko aukera izango dugu, CV eredu eta aurkezpen gutun desberdinak prestatuko ditugu, gure hautagaitzarako enpresen zerrenda egingo dugu, lan elkarrizketetan trebatuko gara eta gure lana bilatzeko lana ebaluatzeko tresna diseinatuko dugu.

Informatika erabiltzen jakitea ere ezinbestekoa da lana bilatzerako orduan. Horregatik, hilero, 30 orduko ikastaroa eskaintzen dugu **oinarrizko informatikan** lehen pausuak emateko. On line dauden lan eskaintzetan izena emateko eta jarraipen eraginkorra egiteko.

Baina lana bilatzeko oinarrizko tresnei buruzko tailer horiez gain, enpresan lan-profil zehatzetara lotutako ezagutzak ziurtatu edo ikasteko ikastaroak diseinatu ditugu. Ildo horretan, partaideen sarrera eta irteerako profilararen arabera, bi bloke handi eskaintzen ditugu.

ZERBITZUEN ARLOAN, **Administrari komertzialari** dagokien 2.mailako Profesionaltasun Ziurtagiria, E-commerce izeneko merkataritza elektronikoari buruzko ikastaroa, eta ISO arau eta Barruko Auditoretzari buruzko ikastaroak eskaintzen ditugu. Ikastaro horiek guztiek, gutxi gora behera, 2 hilabeteko praktikak eskaintzen dituzte enpresetan, ikasitakoa aplikatzeko eta langabetua lan mundura hurbiltzeko, curriculum eta kontaktu profesionalen sarea hobetuz.

ERAIKUNTZA ETA BANAKETAREN ARLOAN, **atzerako hondeamakinako** ikastaroa eta plataforma jasotzaileko ikastaroa eskaintzen ditugu, makina horiek beren aurreko enpleguetan erabili dituztenek beren ezagutzak egiaztatzeko aukera izan dezaketen eta lan-segurtasuneko araudia bete. Horrela, gaitasun profesional horiek beren eraikuntzako lan fundazioko espedienteetan sartu ahal izango dituzte, beren enplegarritasuna hobetuz.

Ikastaroetan izena eman nahi baduzue, inskripzio orria hemendik jaitsi ahal duzue: <https://behargintzaleioa.net/eu/prestakuntza/prestakuntza-eskaintzak>

Eskaintza erabilgarria iruditzea espero dugu. Dena den, aholkurik behar baduzue beste prestakuntza ekintza batzuetarako, Behargintza Leioan atsegin handiz lagunduko dizuegu zuen egoerara hobeto egokitzen den ikastaroa aurkitzen. Mendibil 3 kalean gaukazue zain, 8.30etik 14.30era

PRESTAKUNTZAKO ESPEZIALITATEEN

Prestakuntzako Espezialitateen Estatuko Katalogoa 395/2007 Errege Dekretua (Enplegurako Lanbide Heziketako azpisistema arautzen du) eta martxoaren 22ko 4/2015 Errege Lege-dekretua oinarri hartuta garatu da; lege-dekretu hori Enplegurako lan-esparruko Lanbide Heziketa premiaz eraldatzeari buruzkoa da.

Bada, katalogo hori osatzen duten prestakuntzako espezialitateak CNCPan zehaztutako 26 familia profesionalen barruan sartzen dira. Era berean, katalogoan prestakuntza osagarria edo zeharkakoa ere sartzen da.

Hauxe ulertzen da prestakuntzako espezialitate esaten denean: eduki, gaitasun profesional eta zehaztasun tekniko batzuen multzoa, zenbait lan-jarduerarekin lotuta daudenak, guztiak ere ekoizpen-prozesuaren fase jakin baten barruan sartuak.

Bi prestakuntzako espezialitate mota daude:

- **“Espezialitate egiaztagarriak”** katalogoan jasotako prestakuntzako espezialitateei buruzkoak dira, baina profesionaltasun-egiaztagiri bati lotuak daudenak. (2008. urteko abuztutik argitaratutako errege-dekretuak).
- **“Inskribatutako espezialitateak”** katalogoko prestakuntzako gainontzeko espezialitateei buruzkoak dira, baina profesionaltasun-egiaztagiriei lotu gabeak.

Prestakuntzako espezialitateen euskal katalogoak bere baitan hartzen du estatuko katalogoa, eta prestakuntzako beste espezialitate batzuk eransten dizkio, enpleguaren arloan garrantzi berezia dutenak Euskal Autonomia Erkidegoan.

<https://sede.sepe.gob.es/especialidadesformativas/RXBuscadorEFRED/BusquedaEspecialidades.do>

Agenda

PRESTAKUNTZA PROPOSAMENAK

iraila-abendua //2015

BEHARGINTZA LEIOA

Mendibil, 3

48940 LEIOA (Bizkaia)

Tel: 94 400 41 95

email: behargintza@leioa.net

http://www.behargintzaleioa.net

SIGUENOS EN:



IRAILA

	TITULUA	PRESTAKUNTZA ORDUAK	PLAZA KOPURUA	HAUTATU
1	Enplegua bilatzeko tailerra	10	14	
2	Oinarrizko informatika. Hastapena	20 o. teoriko + 10 o. praktiko	10	
3	Autoenplegua	30	20	

URRIA

	TITULUA	PRESTAKUNTZA ORDUAK	PLAZA KOPURUA	HAUTATU
4	Enplegua bilatzeko tailerra	10	14	
5	Oinarrizko informatika. Hastapena	20 teoriko + 10 praktiko	10	
6	Administrari komertziala	230 teoriko + 150 praktiko	16	
7	E-Commerce	60 teoriko + 120 praktiko	14	

AZAROA

	TITULUA	PRESTAKUNTZA ORDUAK	PLAZA KOPURUA	HAUTATU
8	Enplegua bilatzeko tailerra	10	14	
9	Oinarrizko informatika. Hastapena	20 teoriko + 10 praktiko	10	
10	Atzerako hondeamakina	6	12	
11	Webgunea	60 teoriko + 120 praktiko	16	

ABENDUA

	TITULUA	PRESTAKUNTZA ORDUAK	PLAZA KOPURUA	HAUTATU
12	Enplegua bilatzeko tailerra	10	14	
13	Oinarrizko informatika. Hastapena	20 teoriko + 10 praktiko	10	
14	Plataforma jasotzailea	24	12	
15	ISO eta EFQM	45 teoriko + 120 praktiko	12	



Dirulaguntzak

HUTSEN ZUZENKETA, honako agindu eta deialdi honena: 2015eko irailaren 2ko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, 2015eko ekitaldiari dagokionez, Hirigune - Hiri Merkataritzaren Lankidetzak, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zona-estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programarako arauak ezarri eta deialdia egiten duena. [Buletinerako Sarbidea](#)

Elkarrizketa

Atal honetan, udalerriko enpresak eta ekintzaileak aurkezten jarraituko dugu.

Zure burua ezagutzera eman nahi al duzu?

Espazio hau zuretzat da.



